

ARRASATE PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 20a / 662. zenbakia



Golden Apple Quartet Arrasaten

Domekan, Amaia Udal Antzokian



ORAIN ETA HEMEN: SEXUALITATE IKASTAROA/7 • ZAHARRAK: ARATUSTEETARAKO PREST/17

Hazi, hezi eta bizi Danok elkarrekin



Joseba Ezpeleta
(Langilea)

"Nazionalak?
Horiek aspaldiko
kontuak dira.
Gaurko egunean
herri eskola
daukagu".



Amaia Otamendi
(Dendaria)

"Nik neurea herri
eskolara eramaten
dut, eta oso
gustura nago".



Patxi Goikolea
(Erretiratua)

"Garai batean ez
genuen D
eredurik herrian.
Pozgarria da.
Gauzak guztiz
aldatu dira".



Miren Olazabal
(Irakaslea)

"Kultura eta kolore
guztiak batuko
dituen eskola
behar dugu".



Daniel Delgado
(Erretiratua)

"Guk ez genuen
aukerarik izan,
baina nire ilobek
euskaraz ikasteak
poztu egiten nau".



Elda Lasaga
(Langilea)

"Hezkuntza aukera
bat baino gehiago
izatea aberasgarria
da herri batentzat".

Aniztasunaren alde Arrasate herri eskola



ARRASATE HERRI ESKOLA
2-12 urte bitartekoentzat



ARRASATE-ARETXABALETA BHI
12-21 urte bitartekoentzat

2004-2005 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEA ZABALIK
Otsailaren 16tik 27ra arte



Telefonoa: 943 79 77 74
e-posta: arrasateesk@goieskola.net

- Integratzailea: euskal kultura garatzen dugu, eta beste kulturak era egokian geureganatu eta garatzen ditugu.
- Pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu.
- Sortzailea eta autonomoa.
- Ikastetxeen arteko loturak sustatzen ditugu.



Telefonoa: 943 79 44 47
e-posta: iarrasate@euskalnet.net



Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa



KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu kartelendako panelak ipinttie? Jentiek errespetauko dau?



ABRAHAM SANCHEZ
Langillie



MIREN OLAZABAL
Langillie




GORKA CLEMENTE
Iksaliek



MENTXU CASTELO
Langillie



MIREN LEZETA
Langillie



AITOR RUIZ VILLEGAS
Langillie

Panelak ibiltie oso idea ona pentsetan jat. Paretetan kartel larregi dauz, lotsa-garrixe da, eta horrei konponbidie emun biher jako. Nik pentsetan dot jentiek errespetauko dauela.

Idea ona da, baiñe ikusi egin biherko da panelak ze tamaiñokuek dien, ze lekutan ipiñiko dittuen... Ez dot uste errespetauko dienik, kartelak atenziñue emuteko jarten die-eta.

Oso idea ona pentsetan jat, panelak jartie aproposa da. Hasieran kostauko da, baiñe poliki-poliki jentie ibiltten hasiko dala uste dot. Institutuen be holakuek ipiñiko dittue.

Panelen kontu hori ez jat larregi arduraketan. Idea ona dala uste dot, beste barik. Jentiek kartelak gure dauen lekuen ipiñiko dittu, ez dot uste hori errespetauko dauenik.

Idea ona dala pentsetan dot, panelak ibilli ezkerok pare-tak garbixauiek egongo litzakez, eta herrixe itxurosau. Jentiek kartelak gure dauen lekuen ipiñiko dittu, ez daue errespetauko.

Idea ona da, ingurue garbixauie eukitteko, baiñe ez dot uste funtzionauko dauenik, jentiek ez dau-eta errespetauko. Ohittura batzuk dauz, eta horrekin apurketie oso gatxa da.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK OINEZKOENDAKO OZTOPOAK Gernika Oinezkoen Zumardia erabiltzen duten herritar batzuek honako kexa hau helarazi digute: zumardian ibiltzen diren lagunek Jose Luis Inarra parera heltzean, errepidea zeharkatu behar izaten dute, eta han ez dago inolako zeharbidirik. Oinezkoendako gunearen luzapena den heinean, arazo hori konpontzeko eskatu dute.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

Beka aurkeztu zuten

Melina Lopezek irabazi du aurten-go emakumeendako beka. Melinak proiektua aurkeztu zuen.

KIROLA /11

Igerilekua itxita egongo da

Garbiketa lanak egin behar dituztelako, igerilekua itxita egongo da hilaren 23tik 29ra arte.

GAZTEAK /15

'Eskola eta aisialdia'

Udala eta hainbat elkarte *Eskola eta aisialdia* proiektuarekin lanean dabilta buru-belarri.

ASTEKODATUA

193.000

LAGUNEK ERABILI ZUTEN IAZ AUTOBUS URBANOA

Leintz Garraioak enpresak jakinarazi duenez, iaz, 193.000 bidaia-ri ibili zen Arrasateko urbanon. Egubakoitzetan ibili da lagun gehien. Hilez hil begiratuta, irailan ibili zen lagun gehien.

BESTEKEESANA

Urte askotan irakaskuntzarekin lotura estua izan dot. Azken boladan nahiko minduta nago

jasotzen dugun egurra ikusita, ez bakarrik egur judiziala. Gaur egun eskoletan eta ikastetxeetan hezkuntza arrazista dela esaten dute. Horrek ematen du amorrua. Ez dira hainbeste urte pasa hori diotenek guri eskolak ematen zizkigutela, eta oraindik horretan dabilta. Justu horiek gaur egungo metodoak eta hezkuntza ereduak kritikatzeari benetan mingarria da. Horregatik, hasi nintzen liburu horretan (viatoristen) hezkuntza ereduak jasotzen (...). Salatu gura dut zolan tratatzen zuten euskara, Euskal Herria eta gu. Jipoiak ematen zizkiguten, eta umeak egun osoa beldurtuta edukitzen zituzten"

IÑAKI BEREZIBAR
ARRASATE IRRATIA/2004-02-18

HERRITARRENBERBAK/ Amaia Martiartu



Seattle-tik Arrasatera

Epa, Xabi, ze moduz? Ez, oinguen ez dot artikulue Ameriketatik bielketan. Anetxo eta neu denboraldi baterako Mondraguen gauz. Neskatillie *Olarateko Barnetegixen* sartu dot, eta hasteko, eskerrak emun gura neuskie danei; administraziño, autobus, jantoki, eta, batez be, andereñuei: Miren, Mireia, Sofi, Nerea, Maider, eta abarrei.

Neu be Ameriketarako edukaziñuen murgilddu naz oinguen, eta matrikulaziño sasoi honetan, izugarri gustetan *jataz* (gora, Plaentzi) *Goienkaria*-n idazten dien eskolen gaineko tira-birak, batez be herritarren artekuek.

Hala eta be hamen luzerako egongo banitz, ez litzakit hainbeste gustauko aukeraketie egin biher izetie. *Ameriketako pastela* ikusitue, Euskalerrixen umioi eskola baten sartu edo bestien sartu *antzerako parecido*, bai onerako bai txarrerako. Han bai kontuen euki biher umie nun sartzen

dozun. Kasu honetan baitte onerako edo txarrerako be.

Eskolek hamen familixan estensiño bat die, ez han bezela; han, umie eskolatzerakuen bizitza errealien murgilketan da (eskola publikuetan, behintzet). Ameriketarako kultura pillue nahasketan die ikasgelan, eta horregegaittik, dana politizau egitten da: liburuek, jarrerak, janzkerak, hizkuntza... Dana. Hamen baiño mille aldiz gehixau.

Bukaketako, eta sasi-kanpotar baten ikuspegitik, ni neu bi asuntok ardura-

ketan naue Euskalerrixen: alde batetik, A erudue ez desagerketiek eta bestetik, ume immigrantiak. Nafarroako Unibertsidadien espaiñolek ume kanpotarrak erakarteko planaz jabetu nintzen. Euskaldunok ezin gare atzien geratu. Horreik umiok gure etorkizune be badie, eta eskola hobienak daukogu heziketa elebidunien.

Aprobetxau daigun abantaille edo dohain hori!

"Euskalerrixen umioi eskola baten sartu edo bestien sartu 'antzerako parecido', bai onerako bai txarrerako"

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Galmazarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 20**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- ZAPATUA, 21**
Amezua. Santa Marina 32. 943 79 09 74
- DOMEKA, 22**
Español. Araba etorb. 14. 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 23**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- MARTITZENA, 24**
Zabala. Zarugalde 42. 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 25**
Azkoaga. Ferrerías 1. 943 79 15 15
- EGUENA, 26**
Azkoaga. Iturriotz 17. 943 79 79 99
- EGUBAKOITZA, 27**
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelheenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa
- Arrasate**
Astelheenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzaila 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretratuen egoitza 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezperata zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

ARATUSTEETAKO KALEJIRA
Bihar, zapatua, Lore Gazteak taldeak, txistulariek eta gaitariak kalejira egingo dute, 19:00etan.

ARATUSTE-MARTITZENA
Martitzenean, Poxpolo, Mokolo eta Konpainia taldeak umeendako ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian, 17:00etan. Ordu berean, Kukubiltxo taldeak *Mamutxak* kale antzerki ikuskizuna eskainiko du. 19:00etan, erraldoi eta kilikiak kalejira. Ordu berean, Arrasate Musika Eskolako Futbol Derby Bandak kalejira egingo du. 20:00etan eta 21:30ean, Luhartz taldearekin dantzaldia egongo da Herriko Plazan. Jaia bukatzeko, sardina-ehorzketa egingo dute Herriko Plazan, 22:30ean.

GOLDEN APPLE QUARTET
Domekan, Golden Apple Quartet taldeak ikuskizuna eskainiko du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Sarrera 8 euro da (Gazte-txartelarekin, 6 euro).

ARRASATE MUSIKAL
Gaur, egubakoitza, Arrasateko Musika Eskolako Aratusteetako kontzertua antolatuko du eskolan, 18:30ean. Ikasle ugari hartuko dute parte, guztiek ere moztortuta.

AEDrenAGENDA

ARRASATE LEHIAKETAK
AED elkarteak urtero antolatzen ditu Arrasate Lehiaketak. Iazko irabazle- en lanekin osatutako liburuxka eskuragarri dago AEDn. Gura duenak jo dezala bertara hartzera.

'BERRIA'-REN AKZIOAK
Berría egunkariaren akzioak salgai daude AEDn. Jo AEDra bulego orduetan, goizez edo arratsaldean.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10 URTEARRASATEN

Intsumisoen aldeko plataforma eratu guran

Arrasateko Antimilitaristen Taldeak plataforma bat eratzea proposatu zuen. Horren helburua zen epaituei babesa eskaintzea eta soldadutza salatu gura zuten talde guztiek helburuarekin bat egitea. Sasoi hartan, herriko bi intsumisoren aurkako epaiketak egin zituzten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Ipurzuloko"



Ipurdian ostikoa. *Emuten bostat ipurtzuloko bat...*

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Iñaki Berezibarri elkarrizketa

Juventudes Viatorianas izeneko liburua idatzi duen arrasatearra erekin egin dugu berba asten. Iñaki Berezibar da bera, eta liburuan esaten dituenak direla eta polemika piztu da. Arrasaten, viatoristekin ikasi zuen Iñakik, eta garai haiek gogoratuz, liburu kritikoa argitaratu du. Elkarrizketa zapatuan eta domekan errepikatuko dizuegu, baita Zubillagako suhiltzaileekin egin duguna ere. Pablo Pildainek eta Josu Peredak aldarrikapenen berri eman digute.



Aratusteak eta osoko bilkura astelehenean

Aretxabaletako Aratusteen gainean berba egingo dugu astelehen goizean. Baina osoko bilkurari ere tarte zabala eskainiko diogu, 09:00etan hasiko baita, eta gai garrantzitsuak izango dituzte aztergai. Haur eskolak partzuergoan sartzea onartuko du Arrasateko Udalak, eta San Josepe harrobiari luzapena eman edo ez erabaki beharko dute. Nerea Zubiete lankidea osoko bilkuran izango da, eta zuzeneko konexioak egingo ditugu.

HAUGIROA!

MINIMOA Eguena, 12	-2 °C
MAXIMOA Eguaztena, 11	20 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	7,7 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 11	20 °C -1 °C - l/m²
Eguena, 12	17 °C -2 °C - l/m²
Egubakoitza, 13	16 °C 3 °C - l/m²
Zapatua, 14	16 °C 1 °C - l/m²
Domeka, 15	12 °C 4 °C 1,3 l/m²
Astelehena, 16	8 °C 5 °C 6,4 l/m²
Martitzena, 17	11 °C 5 °C - l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- EGUBAKOITZA**
19:10 Planning Prest
- ZAPATUA**
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Ines Albia Aratusteen gainean; Edorta Aguirre gazte-nomia aditua, okelaren gainean; Zubillagako suhiltzaileak; Iñaki Berezibarri.
- DOMEKA**
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: merideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- MARTITZENA**
19:10 Iluntzean: Olatz Zugasti
- EGUENA**
19:10 Noraezean

ASTEABIHITZETAN

Bederatzi etxebizitza alokatuta

Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren bitartez Arrasaten hutsik zeuden bederatzi etxebizitza alokatuta daude jadanik. Bizigune programan, hutsik dauden etxebizitzak sartzen dira, gero alokairuan jartzeko. Baina maizterrak ordainduko duen alokairua ez da izango merkatuak markatzen duenaren araberakoa.

Batez beste, maizterrak 240 euro ordainduko du hilero, bost urterako kontratua sinatuta. Bitartean, jabeek 520 euro inguru kobratuko dute. Bi prezioen artean dagoen aldea Eusko Jaurlaritzak ordainduko du.


Geyserko langileak kooperatibako bazkide

Fagor Etxetresna Elektroko Kooperatibak Bergarako Geyser Gastech lantegiko 101 langile bereganatuko ditu. Lantegi hori Fagorrek eta Alemaniako Vaillant enpresek sortu zuten 1997an. Orduan, Fagorrek kooperatiba egin gura zuen, baina Vaillantek ez zuen onartu.

Joan den urtean ere, enpresa hobeto gestionatzeko asmorekin, proposamen bera egin zuen Fagorrek. Vaillantek berriz ere ezezkoa eman zuen, baina onartu egin zuen Geyserko langile finkoak Fagorreko bazkide egitea. Horrenbestez, Geyserko 101 langile kooperatibako bazkide egingo dituzte; baina Geyserrek elkarte anonimo izaten jarraituko du.

MU, graduatu-ondoko hiru titulu gehiago

MUk graduatu-ondoko beste hiru titulu jarriko ditu abian hil honetan bertan. Hain zuzen ere, Enpresen Informazio Sistemen Masterra, Enpresen Zerga Arloa eta Proiektuen Kudeaketa. Titulu horiek Goi Eskola Politeknikoan eta Oñatiko Enpresa Zientzien Fakultatean eskainiko dituzte. Horren harira, MUk, gaur egun, graduatu-ondoko 25 titulu eskaintzen ditu.



Debagoienean, etxebizitzak %19 garestiago

Deba Garaia etxe-agentziakoei egin duten azterketaren arabera, azken urtean, Debagoienean etxebizitzak %19 egin dute gora. Aurrera begira, gainera, etxebizitzak ez dira merkatuko; hori bai, igoera ez da horren handia izango. Adituen ustez, aurtengo %10 igoko da etxebizitzaren prezioa.



USTEAKUSTE / Iker Barandiaran

Bisitak eta jakinmina

Astean bisita berezia izan dugu Arrasateko Komunikabideen egoitzan. Midasko (Hizkuntza Minorizatuen Egunkarien Elkarte) hainbat ordezkari Euskal Herrira etorri dira *Berria* egunkariak gonbidatuta. Goienak dituen egitasmoei harritu egin ditu, eta gustura gelditu dira gure enpresan ikusi dutenarekin.

Baina ez dira Europako iparraldetik Goiena soilik ikustera etorri, jakina. Guri jakinarazi zigutenaren arabera, *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxierak asko kezkatu zituen, eta Euskal Herria, hemengo kultura, komunikabideak eta problematika lekuan bertan ezagutu gura zuten. Horretarako, aipatutako hedabideez gain, Eusko Jaurlaritzako Kultura

Sailarekin batzarra egin zuten, baita Seaska, AEK, Gure Irratia eta Demoak taldeekin ere bai. Horretarako, hainbat eta hainbat hitzordu egin zituzten, eta Euskal Herriko arlo gehienak ezagutzeko interes handia zuten.

Pozgarria da noizbehinka atzerritarrek *Ven y cuéntalo* lelo aski ezaguna praktikan jarri izana. Aukera izanez gero, behintzat, horiek bai egin dutela herri bat ondo samar ezagutzeko saiakera.

ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

DEBAGOIENEN LURRALDE ZATIKAKO PLANA BERBAGAI IZAN ZUTEN

Eguaztenean, herriko hainbat elkarte eta sindikatuk Debagoieneko Lurralde Zatikako Planaren gaineko berbalde-mahaingurua egin zuten Arrasaten. Honako taldeek antolatuta zuten ekimen hori: Ezker Batua, Aralar, Zutik, LAB, ESK, CCOO, UGT, AHT Elkarlana eta Ekologistak Martxan-ek, hain zuzen ere.


Plan horri kritikak egin zizkioten, eta, besteak beste, honako puntuak azpimarratu zituzten: ibarreko herritarrek eta udalek ezin izan dutela behar bezala esku hartu; Urkuluko proiektua egingo ez den berrespenik ez dutela, eta abar. Gai horren gainean luze berba egin zuten parte-hartzaileek. //B.



EGUZKI GRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnua: 791844
Faxa: 792941

ARETXABAETA



Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

EUSKARA/Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan matrikulazio garaia

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan euskaraz bakarrik matrikula daiteke

IKER BARANDIARAN

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako matrikulazioa abian da. 0 eta 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoei dago. Egun, Arrasateko 0 eta 12 urte bitarteko gaztetxo guztiak euskarazko eredueta matrikulatzen dira, eta A eredu desagertuz eman dezakegu.

Poliki-poliki, Arrasateko hezkuntza eskaintza euskalduntzen joan da. Azken urteotan, Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren eskaintza guztia euskarazkoa da. Gaztelera hutsezko D eredu, berriz, desagertuz joan da. 0 eta 12 urte bitarteko umeen eta gaztetxoen gurasoek euskarazko ereduaren aldeko aukeraketa egin dute, eta bide batez, horren eskaintza ere desagertu egin da.

LAN HANDIAREN EMAITZA

1993tik 1996ra bitartean, Udalak, AEDk eta Txatxilipurdik D eredu (euskara hutsezkoa) bultzatzeko kanpaina egin zuten. Kanpaina hori, batez ere, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan oinarritu zuten. Kanpaina horietan azpimarratu zutenaren arabera, D eredu da bakarra bermatzen duena umeak edo gaztetxoak euskara ondo ikasiko duela. Gainera, ume horiek gaztelera ondo ikasten dute. Are gehiago, kanpaina haiek baten honako leloa erabili zuten: *Badakizue umea elebiduna izatea bermatzen duen eredu bakarrik D eta murgiltze-ereduak direla?*

Kanpaina horiei esker, eta gurasoek euskarazko ereduaren abantaila jabetuta, poliki-poliki A ereduaren gaineko eskaera desagertuz joan da, eta Haur Hez-



Lehen Arrasaten ume gutxi jaiotzen ziren arren, poliki-poliki hasi da kopurua handitzen.

kuntzako eta Lehen Hezkuntzako ume eta gaztetxo guztiak D eredu eta murgiltze eredueta matrikulatzen dira. Murgiltze eredu, hasiera baten, elebidun eredu moduan ezagutzen zen, baina gaur egun ia D ereduaren parekoa da, ia guztia euskaraz ematen dute-eta.

EUSKALGINTZAREN APUSTUA

Arrasateko Euskalgintzak askotan hausnartu du euskarazko hezkuntza eskaintzaren gainean.

Euskalgintza osatzen duten taldeak oso pozik daude, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan umeak matrikulatzen dituzten gurasoen erabakiarengatik.

Euskalgintzaren esanetan, hezkuntza arlo estrategikoa da euskara normalizatzeko, eta Arrasateko ikastetxeek izan duten borondatea txalotu egin du. Balioen transmisioan ere garrantzi handia du, eta berebiziko garrantzia du erdal (edo bestelako) komunitatea integratzeko.

1993tik 1996ra, Udalak, AEDk eta Txatxilipurdik euskarazko ereduaren alde egin zuten

HHko eta LHko gaztelarazko eskaintza desagertu egin da, gurasoek hala erabakita

Euskarazko hezkuntzak garrantzi handia du beste komunitateak integratzeko

Hezkuntza ereduaren aukeratzea, Arrasaten, urtez urte

Urteak	A eredu	Murgiltze eredu	D eredu
1982-83	46,59	21,19	32,22
1987-88	17,45	47,62	34,92
1992-93	1,04	57,58	41,38
2003-04	0	28,5	71,5

Datuak ehunikotan daude. Herriko eskola guztiak kontuan hartu ditugu. 1982tik 1993 artekoak Eskolaurreko eta OHoko datuak dira; 2003-04koak, berriz, HH eta LHkoak. B eredu Murgiltze eredu bilakatu da, eta ia euskara hutsezkoa da.

GONTZAL LANDA

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ TALDEKO KIDEA

“Oso positiboa da kanpotik etorritako lagunek umeak euskara hutsezko ereduaren eskolaratzea”



Arrasaten Haur Hezkuntzak eta Lehen Hezkuntzak ez dute A eredurik eskaintzen. Gure ustez, bide hori da jarraitu beharrekoa. Euskal Herrian bizi garen guztion eskubidea da euskaraz jakitea, eta hori herritarrek argi izan behar dute beti. A eta B hezkuntza ereduak eskubide hori urratzen dute, ez dituztelako ikasleak benetan euskalduntzen. Arrasateko 0-12 urte bitarteko umeen gurasoak ohartu dira D ereduak belaunaldi berriei euskara ziurtatzen diela eta gizarteratzeko ezinbesteko tresna dela. Edozelan ere, euskara, oro har, Euskal Herrian galbidean da, batez ere administrazioek ezarritako hizkuntza politika antzu eta erasokorregatik, baina guraso gehienek ez dute esperantzarik galtzen, eta nahiko argi daukate etorkizuneko Euskal Herria euskalduna izango dela. EHERendako positiboa da Euskal Herri kanpotik etorritako lagunek euskara hutsezko ereduaren eskolaratzea ikastetxetan. Argi dago beraiek ere badutela euskaraz jakiteko eskubide osoa. Dena den, nazio mailan ume gehienak erdarazko eredueta eskolatuta dira, eta oraindik lan handia egin behar dugu.

IDOIA OTAEGI

TXATXILIPURDIKO LANGILEA ETA 'ESKOLA ETA AISIALDIA' PROIEKTUKO KOORDINATZAILEA

“D ereduaren seme-alabek gure herriko hizkuntza ikasiko dutela ziurra da. Hori da gure aukera”



Eguno gizartean gaztelaniaren ezagutza bermatuta dagoela eta, euskararen ezagutza ziurtatzen duten D ereduak berebiziko garrantzia hartzen du. D ereduaren ikasitako ume eta gazteak elebidunak dira, horrek apendizian dakartzen onura guztiekin -ele bi edota kode bi izatean, umeak gaitasun linguistikoez gain, gaitasun metakognitibo, eta ezagutza estrategikoko gaitasunak gehiago landuko ditu-. Bestalde, hizkuntzak izatea definitzen duen herri batetan bizi gara -euskaraz egiten gaitu euskaldun-, eta hortaz gure kultura eta orokorrean gure izaera ulertzeko, gure herri honetan sustraitzeko ezinbestekoa da gure hizkuntza ondo jakitea. Lanaren arloan gero eta gehiago, hizkuntza eskakizunak markatzen ditugu, jada ez da nahikoa gai batean edo bestean aditua izatea; euskal hiztunak hizkuntza eskubide batzuk izan baditu, eta horiei erantzuteko lanean are eta eskakizun gehiago sortzen dabilta. Arrazoi horiek kontutan izanik, euskara ikastea ezinbestekoa bilakatzen da. Gure arbasoengandik altxor ederra eskuratu dugu, eta guk altxor hori seme-alabei luzatzeko garaia da. D ereduaren gure hizkuntza ikasiko dutela ziurra da, eta hori da gure aukera.

ELKARRIZKETA

EVA RUIZ DE EGINO ETA LARRAITZ ARANDO / SEXOLOGIA ZERBITZUKO KIDEAK

"Inposatutako ereduak guztioi egiten digute kalte, oso zorrotzak direlako"

UBANE MADERA

Martxoaren 8an hasi eta hurrengo lau astelehenean sexualitatearen gaineko ikastaroa izango da Emakume Txokoa, 16:00etatik 19:00etara. Udala Sexologia Zerbitzuko Larraitz eta Eva izango dira gidariak.

Zelako ikastaroa izango da?

Emakume gazteendakoa, gutxi gorabehera 18tik 40 urtera artekoendakoa. Mugatzearen edo zerbaitetan zentratzearen egin dugu hori. Izan ere, ez da gauza bera 13 urteko neska batek edo 25 urteko batek bizi duen errealitatea.

Zein eduki landuko duzue?

Sexualitate kontzeptua; zein den gaur egun gizartean dagoen eredu sexuala; hausnartu ea eredu hori nahi dugun edo ez (emakumeok edo gizonezkoek, berdina); eta gero zela aurre egin eredu horri. Bizi dugun eredu oso zorrotza da: bikote gaztea, heterosexuala, harremanak birsorkuntzara begira izaten dituenak eta plazerra eta desira alde batera uzten dituenak. Eredu horretatik kanpo geratzen diren errealitateak eta non geratzen dira? Gainera, gizarteak zera egiten du: eredu segitzen ez duena atzamarrekin seinatu eta askotan sutara bota. Errealitatea hausnartzen badugu, aterako dugun ondorioa da aniztasuna dagoela, eta ereduak ahalik eta zabalak izan behar dutelá. Guztien nahiek lekua izan behar dute, ez erri barik zer den normala eta, zer ez.

Eta eredu hori ez da aldatu azken urteotan?

Formak dezente aldatu dira, baina barrukoa ez. Gaur egun




bizi dugun egoera ez da gure gurasoek bizi zutena: informazio gehiago dugu, eskoletan izaten dira sexualitate ikastaroak... Diskurtsoa aldatu egin da, baina, orain ezarri duten ereduak emakumeak hartu behar duela gidaritza: erabat aktiboa izan behar du, multiorgasmikoa, etxetik kanpo lan mordo egin, eta etxean ere

bai, amatasuna bigarren planoan geratu da... Eredu horrek zeini egiten dio on eta zeini kalte? Bada, uste dut beste behin gizonaren nahiari erantzuten diola.

Zer egin beharko litzateke hori aldatzeko?

Nork bere burua ezagutu beharko luke, zer nahi dugun ikusteko. Eta estereotipoak baztertu egin behar dira.



Hauteskundeetarako mahaiak eratuta

Zozketatu dituzte hauteskunde-mahaian egon behar duten 297 arrasatearren izenak. Betiko moduan, ordenagailu bitartez egin zuten zozketa. Hala, 33 hauteskunde-mahai izango dira martxoaren 14an, sei lekutan: Ferixalekua, San Antolin (Musakolan), Toki Argi eraikina, Bedoñabe, Erguin (eskolan) eta Jokin Zaitegin.

Tokatu zaien oraingo asteen jaso dute abisua. Gero, zazpi egun dituzte erreklamazioak egiteko, Bergarako epaitegian.

Autobus urbanoaren zerbitzua saturatuta dagoela uste dute

U.M.

Aurreikusitakoak baino datu hobekak lortu ditu 2003an autobus urbanoak. Hala erakusten du Leintz Garraioak enpresak aurkeztutako txostenak. Zerbitzua hobetu egin beharko litzatekeela ere badio.

Ia 193.000 bidaiari ibili da 2003an Arrasateko urbanoan, 643 bidaiari egunean. Hain zuzen ere, Leintz Garraioak enpresak jakinarazi duenez, eurek egindako aurreikuspenik onenak baino emaitza hobekak lortu dituzte 2003an. Hala, datuek erakusten dute 1-Linean bidaiaren %51,30 ibili direla; eta 2-Linean %48,70.

Hilez hil begiraturta, irailean ibili zen jende gehien (757 lagun egunean); eta urtarrilean eta otsailean ondoren.

Asteko egunei begiraturta, berriz, urbanoa kudeatzen duen enpresaren datuek erakusten dute egubakoitzetan ibiltzen dela jende gehien, batez ere azokaren eta azoka txikiaren eraginez. Bidaiari gutxien, berriz, zapatuetan ibiltzen da. Eta bukatzeko, orduen arabera, 1-Linean goiz erdian ibil-

tzen da bidaiari gehien: 11:00etatik 12:00etara. Eta 2-Linean, goizeko lehenengo orduetan: 08:00etatik 09:00etara.

BIDAIARI GEHIEN EROSKIRA

Bestelako datuen artean, Leintz Garraioak enpresaren hausnarketak erakusten du urbanoan ibiltzen diren bidaiari gehienak Eroskira joaten direla: %20,30 (38.015 bidaiari). Eta bidaiari gutxien, berriz, Arimazubi inguruetara joaten dela. Eta, ambulatorko edo ospitaleko geralekua espero baino dezente gutxiago erabiltzen dutela.

URBANOAREN ZERBITZUA SATURATUTA

Bukatzeko, emaitzak ikusi eta gero, Leintz Garraioak enpresako ordezkariak uste dute urbanoaren saturazio egoerara iritsi garela. Hau da, zerbitzua hobetu egin behar dela, urtetik urtera bidaiari kopuruak gora egin duelako. Eta Udalarari proposatu diote autobusak orduro izan beharrean, ordu erdira izatea. Hala, hiru helburu lortuko dituztela: mugikortasuna bultzatu, zirkulazioa arindu, kutsadura txikitu eta herritarren bizi-kalitatea hobetu.



Enpresakoek proposatzen dute ordu erdira izatea autobus zerbitzua.

LABUR

Kristina Goirizelaia preso arrasatearrak bertan behera utzi du gose greba

Astebetetz gose greban egon eta gero, joan den astelehenean (hilak 16), bertan behera utzi zuen protesta ekimena Kristina Goirizelaia presoak. Frantziako Fresnesko kartzelan dago Goirizelaia. Han bizi duten egoera salatzeko egin du gose greba, bestelako preso politikoekin batera. Zera diote: Espainian bezala, Frantziako estatuak ere bakartze politika abiarazi duela preso politikoekin.

Ur hornidura eta zabor bilketari dagokion laugarren hiruhileko tasa kobratuko dute

Udaleko Zerbitzu Sailak jakinarazi du 2003ko laugarren hiruhileko ur hornidurari eta zabor bilketari dagokion tasa ordaintzeko borondatezko epea zabalik dagoela, apirilaren 15era arte. Hala, epe horren barruan ordaindu ez duen herritarren %20ko gainkarguarekin kobratuko diote zerga hori.

Eskulturak eta jantziak uztartuko ditu Melina Lopezek bere proiektuan

UBANÉ MADERA

Melina Lopez eskulturagileak aurkeztu zuen Emakumeendako Bekarako egingo duen proiektua: lan esanguratsuak egin dituzten zenbait emakume artistarekin lotuta, eskulturak eta jantziak uztartuko ditu. Uda baino lehen aurkeztuko dute emaitza.

Bigarren urtez, Melina Lopez eskulturagile arrasatearrak eskuratu du Emakume Sailak eskaintzen duen Emakumeendako Beka. 3.000 euroko beka emango diote Lopez, emakumeekin lotutako proiektu bat egiteko.

ESKULTURA ETA JANTZIAK

Hala, joan den astelehenean prentsaurrekoa eskaini zuten Emakume Saileko ordezkariak eta Melina Lopezek berak. Saileko teknikari Maite Barreñak jakinarazi zuen guztira hiru proiektu aurkeztu dituztela aurtengo Emakumeendako Bekarako. Eta Lopezena aukeratu dutela interesgarria eta politena zelako. Edozelan ere, gogorarazi zuen bi urtez bakarrik eskura daitekeela beka hori; hortaz, Melina Lopezek aurkeztu duen azkeneko proiektua izango da aurtengoa.

Gero, artista arrasatearrak bere proiektuaren berri eman zuen. Eskultura eta jantziak uztartuko dituela jakinarazi zuen. Eta lan hori egiteko obra esanguratsuak egin dituzten zortzi emakume artista aukeratu ditu:



Zortzi emakumetan oinarritutako proiektua egingo du Melina Lopezek.

Ana Mendieta, Frida Kalho, Louise Borjeouis, Claude Cahun, Eva Hesse, Rebecca Horn, Georgia O'keeffe eta Cindy Sherman. Zortzi artista izanda, zortzi eskultura egingo ditu.

Melina Lopezek kontatu zuen gustuko zituelako eta oso obra interesgarria dutelako aukeratu zituela aipatutako artistak. Emakume haiek egindako lana ezaugarazi gura du zelanbait. Gaineratu zuen, behin proiektua egin ostean, bere asmoa dela instala-

zio batean aurkeztea eta ez desfile edo antzeko zerbaitegitea. Izan ere, desfilea-edo eginez gero, jantziak eta eskulturrek garrantzia galduko lukete.

UDA BAINO LEHEN

Uda baino lehen aurkeztuko du egindako lana. Egindakoa zela geratzen den ikusi eta gero erabakiko dute zein erabilera eman. Adibidez, aukeretako bat da Arrasaten erakutsi eta gero, bestelako herrietara ere eramatea.

Automobileko mekanikaren gaineko eskolak, andrendako

U.M.

Automobileko mekanikari izateko ikastaroa antolatzea onartu du Gobernu Batzarrak. Oro har, langabetuei zuzendutako ikastaroa da, baina emakumezkoek lehenak izango dute.

Prestakuntza bariko langabetuak baina bereziki emakumeak hartu gura dituzte automobileko mekanikari izateko antolatutako ikastarorako. Izan ere, ikastaroaren helburua da langabeziak bereziki jotzen duten giza taldeei laneratzeko laguntzea. Hala-

ko kasuetan egoten direnen artean gehienak emakumeak dira eta horregatik dute lehenak.

OTSAILAREN 27A BAINO LEHEN

Mekanikari izateko ikastaro horrek 389 orduko iraupena izango du. Asko jota 12-15 langabetu hartuko dituzte eta automobilgintzako lantegietan eta kontzionarioetan lan egiteko prestatuko dituzte.

Parte hartzeko interesa duenak otsailaren 27a baino lehen eman beharko du izena udalategian. Gero, ikastaroa martxoaren 8an hasiko da eta uztailaren 8ra arteko izango da.

Langabezia daudenendako ikastaroak aukeran

U.M.

Enpleguko Institutu Nazionalak langabezia dauden pertsonendako ikastaroak antolatu ditu. Zenbait arlotako gaiak landuko dituzte; informatika, osasuna, industria eta automobilgintza, adibidez.

Langabeendako zortzi ikastaro antolatu ditu Arrasateko Enplegu Institutuak. Zenbait espezialitate landuko dituzte ikastaro horietan. Enpresei zerbitzuak emateko espezialitatea, adibidez. Pertsonal arloko administraritzak, kudeaketa informatikako aplikazioak, enpresak sortu eta kudeatzea, arriskuen prebentzioa eta ingelesa merkataritzan jarduteko. Hori guztiori emango dute

enpresen arloan. Informatikarekin lotuta, berriz, ofimatika, web orrien diseinua, 2D eta 3D planoen diseinua, informatika alfabetatzea eta hastapen mailako Internet landuko dituzte.

Osasunari dagokionez, geriatra laguntzaile izateko ikastaro emango dute. Garraioarekin lotuta, berriz, C1 eta C gida baimena kamioi gidari izateko eta kamioi erremolkea eramateko.

Industria astuneko eta metalen eraikuntzen arloan, metalen egitura arinen soldadura landuko dute. Ekipo elektronikoen fabrikazioan, CNC makina erremintako prestatzaile programazioa. Automobilgintzan, ibilgailu arinen mekanika, eta bestelakotan, hondakin uren araztegitako lan gile izateko ikastaroa.

Uniformetasuna lortu guran herriaren itxurari dagokionez

U.M.

Herriaren itxurari uniformetasuna emateko ordenantza egin gura du Arrasateko Udalak. Hain zuzen ere, urbanizazio lanen bat egiten duen edozein enpresak errespetatu beharrezko araudia egin gura dute. Hori idazteko lana LKS enpresari esleitu diote.

Orain arte, enpresa batek etxeak eraiki eta horren osteko urbanizazio lanak egiten bazituen, ez zuen arau zehatzik gorde behar. Horren ondorioz, askotan ikusi izan ditugu, adibidez, eraiki berri dituzten etxe batzuen inguruan, kale-argi bereziak, herriko gainetako lekuetakoekin konparatuz, desberdinak; edo parke eta jolasleku bereziak... Hori saihestu guran, urbanizatzeko orduan kontuan hartu beharrezko araudia egin gura du Udalak, herriko itxuraren uniformetasuna lortu guran. Horren arabera, urbanizatzeko



Urbanizazio berrietan zenbait elementu errespetatu beharko dituzte.

orduan, zenbait esparru kontuan hartu beharko dituzte: zoladura (aparkalekuak, oinezkoendako bideak... egitea). Zerbitzuekin lotutako azpiegiturak: kale argiak, adi-

bidez. Gune berdeak eta lorategiak ere zaindu beharko dituzte eta kaleko altzariak herrian dauden parekoak ipini. Laster idatziko du araudi hori LKSk.

LABUR

Astelehenean otsailari dagokion ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzarrak

Datorren astelehenean, hilak 23, hileroko ohiko batzarra egingo dute udalategian. Oraindik ez dute zehaztu landu beharrezko gaien zerrenda baina, gaietako batzuen berri izan dugu. Hala, Biterri lur azpiko aparkalekuarekin lotuta, lanek iraun artean, Laubitu aparkalekuan gaueko prezio berezia (euro bat) ipintzeko aukera aztertuko dute. AKEIko zaborteia berreskuratzeko Udalararen eta Makomunitatearen arteko hitzarmena ere landuko dute. Eta baita San Josepe harrobiari esplotazioa luzatzeko baimen eskaera eta Betiko moduan, 09:00etan hasiko da batzarra.

Sendabelarrekin eta ekosistemekin lotutako ikastaroa antolatu du Basabelar elkarteak

Otsailaren 28an hasi eta martxoaren azkenera arte, zapataro izango da *Sendabelarrak eta Ekosistemak* izeneko ikastaroa; guztira 20 ordukoa. Urtzi Mendizabal biologoa izango da irakaslea eta Makomunitatearen egoitzan izango dira eskolak. Honako edukia landuko dituzte: sendabelarren identifikazioa, hemengo ekosistemak ezagutzeko, ekosistemek gizartearengan duten eragina eta sendabelarrek gizarteari ematen dioten zerbitzua. Ikastaroan parte hartu gura duenak otsailaren 27a baino lehen eman behar du izena. Gaiak Bulegoan (943 77 00 65) edo honako telefonoan: 645 71 23 69.



MIDAS ELKARTEKOEN BISITA IZAN GENUEN GOIENAN

Oraingo astean bisita berezia izan dugu Goienan. Martitzen arratsaldean, MIDASko ordezkariak (Hizkuntza Minorizatuen Egunkariaren Elkarte) izan ziren gurean, Goiena Komunikazio Zerbitzuak hurbil-hurbiletik ezagutzeko asmoarekin. Guztira zortzi kazetari izan ziren: Finlandia, Katalunia, Eslovakia, Austria eta Tiroletatik etorritakoak. Gustura ikusi zuten eskualdeko proiektua den Goiena kooperatiba. Ibarrean egoteaz gain, baina, oraingo egunotan *Berria*

egunkaria, Seaska, Gure Irratia, Batera plataforma, Demoak, AEK, EITB eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila bisitatu dituzte. ARRASATE PRESSko egoitzan Inaxio Arregi zuzendariak eta Iban Arantzabal lankideak, *Goienkaria*-z gain, *Goiena.net* eta *Sustatu.com* webguneak ere aurkeztu zizkieten. Horrez gain, GOITB eta Arrasate Irratia ere bisitatu zituzten. Harrituta geratu ziren, gu ohituta bagaude ere gutxitan ikusten direlako horrenbeste komunikabide elkarrekin lanean.



ARATUSTEETAN KALEAK GIROTZEN

Aspaldi hartu zuten Arrasate Musikalekoek herriko jaiak animatzeko konpromisoa, eta Aratusteetan ez dute kale egingo. Martitzenean, Arrasate Musikaleko Futbol Derby Bandak kalejira egingo du 19:00etan. Ez dakiguna da derbiarena izena bakarrik ote den, edo banda-koak Realeko eta Athleticceko jantziekin moztortuko diren. Aldi berean tronpetak jo eta futbolen jokatzeko gai izango ote dira?

ONDO PASATZEKO AUKERA ONA: LUDOTEKA IBILTARIA MUSAKOLAN EGONGO DA BIHAR

Arrasateko gaztetxoek ondo pasatzeko aukera ederra izango dute bihar, Txatxilipurdik antolatzen duen ludoteka ibiltariak Musakolan egingo du-eta geldinean. 11:00etatik 13:30era San Antolinen izango dira, eta 3 urtetik 12 urte bitarteko gaztetxoek

hartu ahal izango dute esku. Biharko egunaz gain, datorren zapatuan ere, hilak 28, ludoteka ibiltariko lagunak Musakolan izango dira. Hortaz, bi astez ederto pasatzeko aukera ederra izango dute Musakolara hurbiltzen diren umeek.



ARTXIBOA

Alde txikiagatik izan bada ere, Arrasatek galtzen hasi du igoera fasea. Igoera fasea, baina, hasi baino ez da egin.

ERRUGBIA

Gasteizen galdu eta gero, Arrasate puntu bila joango da Santanderrera

David Jauregiren mutilek bi puntuko aldeagatik galdu zuten Gaztediren kontra

XABIER URZELAI

Igoera fasea parekatua izango da, seguru aski. Arrasatek bi puntuko aldearekin galdu zuen Gasteizen, baina gasteiztarrek Garagartzara etorri behar dira oraindik. Oraingo asteburuan, baina, Santanderko Unibertsitatearen kontra jokatu dute.

Arrasateren multzoko talde ahulena da Santander, eta igoera fasean aurrera egiteko, Arrasatek ezin du Santanderren punturik utzi. Joan den astean Zarautzek 22-14 irabazi zion Santanderri, eta oraingo asteburuan Arrasa-

tek beste horrenbeste egin behar du; bestela, David Jauregiren mutilak atzean geratuko dira.

GASTEIZEN, BI PUNTUGATIK GALDU

Joan den astean norgehiagoka parekatua jokatu zuten Gaztedik eta Arrasatek. Hasiara baten Garagartzan jokatu behar zuten, baina Gaztedik ordua aldatzea eskatu zuen, eta azkenean, ordua eta lekua bera aldatu zituzten; izan ere, arratsaldeko bostetatik aurrera Garagartzan jokatzeko ez dago nahiko argi. Zeingehiagoka gogorra izan zen, lehia handikoa. Lehenengo zatian Arrasatek hobeto jokatu zuen, baina mar-

kagailuan parekatuta erretiratu ziren aldageletara.

Bigarren zatian, berriz, Arrasate hotz zelairatu zen, eta Gaztedik bi entsegurekin erantzun zuen. Arrasatearrek, baina, berotu eta entsegu bat egin zuten, baina ez zen partidua irabazteko nahikoa izan. Bi taldeek berobero amaitu zuten partidua; tentsio handiko norgehiagoka izan zen, eta jokalarien artean berba goxoak baino zerbait gehiago ere izan zen. Hala, garrantzitsua da asteburuan Santanderren irabaztea; gainera, Zarautzen eta Gaztediren arteko partidua hurbiletik jarraitzekoa izango da.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Betrayer - Alpargat Estutu!!!	10-0
Abokajarro - Iriztu Taberna	3-8
KPPC - Billy & The Cowboys	0-1
Aloña Taberna - You Know!	1-3
Saukelu Scream - Bikain Akademia	7-4
Koka Juniors - AT Celaya	0-1

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Iriztu Taberna	18	11
2. Betrayer	17	11
3. You Know!	16	11
4. Rayo Aldeano	14	11
5. Saukelu Scream	14	11
6. Abokajarro	13	11
7. Aloña Taberna	12	11
8. AT Celaya	11	11
9. Alpargat-Estutu	11	11
10. Bikain Akademia	8	11
11. Billy & The Cowboys	8	11
12. KPPC	2	11
13. Koka Juniors	0	11

PARTIDUAK

OTSAILAK 21, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: Abokajarro - You Know!	Billy & The.
12:00: Billy & The... - Alpargat Estutu!	Aboka.
13:00: Betrayer - Iriztu Taberna.	Alpargat.
16:50: Aloña Tab. - Rayo Aldeano	Saukelu.
18:00: Saukelu Scre. - AT Celaya.	Rayo Ald.

Deskantsua: Bikain Akademia.

B MULTZOA

	P	J
1. Dribling	20	11
2. Etxerat	18	11
3. Lasagabaster	15	11
4. AC Surcos	14	11
5. Goma-2	12	11
6. Dream Team	11	11
7. Tomahawk	11	11
8. Speed Boys	10	11
9. Errasti Kristaldegia	9	11
10. Fuxion	9	11
11. El Ekipo A.	3	11
12. Whiskeria	0	11

JOAN DEN ASTEKOAK ZUZENTZEN

IAZKO TXAPELDUNAK ORAINDIK BADAUKA SAILKATZEKO AUKERA

Joan den astean despistatu samar ibili ginen, eta A multzokoek azken jardunaldia jokatu zutelako idatzi genuen. Horrekin batera, joan den urtean txapelidun izan zen AT Celaya taldea ia-ia kanpoan zegoela esan genuen, eta ez da horrela, oraindik ere sailkatzeko aukera du-eta. Kontua da oraingo asteburuan jokatu dutela A multzokoek lehenengo faseko azken partidua. Hiru talde ibiliko dira zazpigarren eta zortzigarren postuetatik lehia: Aloña Taberna, AT Celaya eta Alpargat Estutu taldeak, hain zuzen.

Aloña Tabernak beste bi taldeek baino puntu bat gehiago du, baina oraingo asteburuan kontrario gogorra izango du: Rayo Aldeano. AT Celaya eta Saukelu Scream taldeen arteko partidua ere ikustekoa izango da, nahiz eta Saukelu dagoeneko sailkatuta dagoen. Azkenik, Alpargat-Estutuk atzeko postuetan dagoen Billy & The Cowboys taldea izango du kontrario. Talde horrek ez dauka sailkatzeko aukerarik, baina Alpargat-Estuturik ez zaio komeni partidura lasai-lasai joatea.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Beti Gazte - Mondra

Preferentea. Zapatuan, 16:00. Lesakan.

Hondarribia - Mondra

Ohor. Gazteak. Zapatuan, 16:00. Ondartzan.

ESKUBALOA

Arrasate - Groseko

Udaberri Txap. Domekan, 11:45. Iturripen.

Hegialde Auto - Arrasate

Udaberri Txap. Domekan, 11:00. Iturripen.

Arrasate C - Usurbil

Udaberri Txap. Domekan, 10:15. Iturripen.

SASKIBALOA

Ointxe Arrasate - Tabirako

Seniorrak. Zapatuan, 20:00. Iturripen.

ERRUGBIA

Santanderko Unib. - Arrasate

Seniorrak. Zapatuan, 16:00. Unibertsitatean.

Arrasate - Bilbo EHU

Gazteak. Zapatuan, 11:30. Garagartzan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Big. Gazt. Lazkao-Arrasate

Ohor. Kadete. Lengokoak-Arrasate

Big. Kadete. Amaikak Bat-Arrasate

Neskak. Mondra-Ilintxa

SASKIBALOA

Juniorrak. Barcelo Bidaiak-Arrasate

Kadeteak. Arrasate-STL Etxaun

ESKUBALOA

Udab. Txap. Ormaiztegi-Arrasate

Udab. Txap. Arrasate-Urola

Gazteak. Urnieta-Gatz Museoa

Kadeteak. Hondarribia-Gatz Museoa

SASKIBALOA

Ointxe-Tabirako, bihar, 20:00etan, Iturripen

Ointxe Arrasate gera ezina da, jaitsiera fasean bai, behintzat. Joan den astean Arrasateko taldeak 73-84 irabazi zion Urdanetari. Ez zen aurrekoak bezain norgehiagoka ikusgarria izan, baina gaizki jokatu ere Arrasatek irabazi egin zuen. Oraingo asteburuan etxean jokatu du Ointxek, bihar arratsaldean, hain zuzen. Ordua, baina, aldatu egin dute; normalean 18:00etan jokatzen dute, baina bihar 20:00etan izango da partidua. Durangoko Tabirako izango da kontrarioa. Ea Arrasatekoen bolada onak beste sei aste iraūten duen.

PERTIKA JAUZIA

Gutxiagatik ez zuen Jonathan Perezek bere marka hobetu

Realean dabilen Jonathan Perez pertika jauzilariak gutxiagatik ez zuen joan den zapatuan bere marka onena gaintu. Euskadiko Talde-kako Kopa zegoen jokoan, eta 4 metro eta 80 zentimetroko jauzia eginez Arrasateko atleta bigarrena izan zen; gutxiagatik ez zuen 4 metro eta 90 zentimetroko jauzia egin. Marka ona da, lesionatuta egon dela kontuan hartuta. Dagoeneko amaitu dira pista estaliko probak; Realeko atletak aire libreko probak hasiko ditu apirilean, eta aspaldian helburu duen bost metroko jauzia egiten ahaleginduko da.

MENDIZEHARKO ESKIA

Egun txarra izan zuen Isa Casadok Formigalen

Isa Casadok mendizeharko eskiko Euskadiko Kopako hirugarren proba jokatu zuen joan den astean, eta Arrasatekoa ez zen batere gustura ibili: "Egun txarra izan nuen, eta gaizki ibili nintzen proban. Hamabigarren postuan helmugaratu nintzen, baina beste proba batzuetan atzean utzi dudak jendeak aurreratu egin ninduen". Badirudi atsedean ez hartzea dela gaizki ibiltzearen arrazoia, baina berak ere ez dauka hori argi. Hurrengo proba martxoaren 7an korrituko du. Euskadiko Txapelketa egongo da jokoan, Luz Ardidenen.

Beti Gazteren kontra amaitu gura du Mondrak bolada txarrarekin

XABIER URZELAI

Atxabalpen ahalik eta azkarren ahaztu gura dute joan den zapatuan Real Unionen kontra jokaturako partidua, eta datorren partidua prestatzea da horretarako bide onena. Aspaldian ez du Mondrak horrelako bolada txar bat izan, ezta erregionalean ere.

Emaitza aldetik, aspaldian ez ditu Mondrak lau partidu jarraian galdu. Eta, joko aldetik, aspaldian ez dute joan den zapatuan bezain gaizki jokatu. Aurreko hiru partiduetan Mondrak gol asko jaso bazituen ere, arrasatearrek gora egiteko kemena izan zuten. Joan den zapatuan, asko igarri zen Laspiurren eta Ruedaren hutsunea, larregi.

BETI GAZTEREN KONTRA

Oraingo asteburuan Mondrak Beti Gazteren kontra jokatu du Lesakan. Lehenengo itzulian Arrasateko taldeak erraz irabazi zion Beti Gazteri (4-0). Orduan, Arrasateko taldea sasoiaren zegoen, eta, gura beste gol egiteaz gain, gol gutxi jasotzen zituen.

Orain, egoera bestelakoa da, baina azkeneko postuetan dagoen talde baten kontra jokatu du



ARRASATE PRESS

Joan den zapatuan, gol aukera bakarra izan zuén Mondrak.

Mondrak. Badirudi bigarren itzulia lehen bano dezente gogorragoa izango dela. Hasiara kasikarra izan zuten talde asko gogor datoz behetik gora; eta, Mondrak goitik behera ez egiteko egin behar du lan.

OHOREZKO GAZTEAK HONDARRIBIAN

Oraingo asteburuan Mondrako ohorezko mailako gazteek kanpoan jokatu dute, Hondarribiaren kontra. Joan den astean

arrasatearrek laugarren postuan zegoen Elgoibari ondo egin zioten aurre (3-3). Oraingo asteko kontrarioa ere ez da makala, Hondarribia sailkapenaren goialdean dagoelako.

Hala ere, bi taldeak zelairatzen direnean, sailkapenak gutxi-rako balioko du. Esti Loitiren eta Arkaitz Gaintzarainen mutilek daukatena ematen badute, Hondarribiari asko kostako zaio Mondra mendean hartzea.

FOTOKIROLA



Datorren astean, igerilekua itxita

Datorren astelehenetik, hilak 23, domekara arte, hilak 29, Musakolako barruko igerilekua itxita egongo da. Garbiketa lanak egin behar dituztelako itxiko dute igerilekua. Medikuen aginduz igeri egin behar duten herritarrek Aretxabaletako igerilekura joan ahal izango dute, betiere, Musakolako Kirol Medikuntzako medikuen egiaztagiria erakutsita. Edozelan ere, sauna eta lurrun-bainua zabalik egongo dira, eta ohiko ordutegia izango dute. /X.U.



ONDARROAKO ARRANTZA, ZUZENEAN ARRASATERA.

- AZOKA PLAZAKO ARRASATEKO KAIA ARRANDEGIAN (LEHEN LA BERMEANA ZENA) ARRAINIK FRESKOENAK.
- GURE ITSASONTZIETAN HARTUTAKO ARRAINAK.
- ZERBITZU OSOA ESKAINTZEN DIZUGU: GARBITU, ZATITU...
- ENKARGUAK HARTZEN DITUGU: TABERNA, JATETXE ETA ELKARTEENTZAT.




Arrasateko kaia

arrandegia

11-12 postuak. Azoka plaza Tel.: 943 79 15 94



ARRATUSTEETAN IZAN ZAITEZ PISTAKO IZARRA!!



BASATI
BIONA
BOLIÑETE
BRANHA
EWAITZ

EXPRES KAFETEGIA

GURE LEHU

IRATI

ITZALA

JAI ZALE

MONTE

LORA



GOLDEN APPLE QUARTET

Golden Apple Quartet laukotearen aurpegi eta ahotsak oso ezagunak dira.

MUSIKA/Domekan, Golden Apple Quartet taldeak '17 años Golden' eskainiko du

Golden Apple Quartet taldeak ikuskizuna egingo du Amaian

IKER BARANDIARAN

Donostiako Golden Apple Quartet taldeak izen handia dauka. Izan ere, 17 urte daramatza telebista saioetan, antzokietan eta bestelakoetan kantua eta umorea uztartzen. Domekan, Arrasatera etorriko dira taldearen hamazazpigarren urteurrena ospatzera.

Golden Apple Quartet talde beterranoa da. Orain dela 17 urte Donostian jaio zen, oso ibilbide luzea egin du, eta euren esketxak non-nahi ikusi ditugu. Urte hauetan guztietan, kanturako duten gaitasuna eta umorea uztartzen jakin dute. Hain zuzen ere, euren burua adin guztiendako talde moduan definitzen dute. Eta hala da, oso formula berezia asmatu zuten-eta. Batetik, kantua gustuko dutenek laukote horren tenore ahotsekin disfrutatzen dute. Eta bestetik, taldeko kideen txiste eta esketxek gaztetxo- en eta helduen irribarreak eta algarak sorrarazten dituzte. Ez da ohiko taldea, eta eurek bada- kite hori. Horretan datza talde- ak izan duen arrakasta.

IA KASUALITATEZ SORTU ZUTEN

1986an sortu zuten Golden Apple Quartet, lagun baten ezkontzan. Taldea osatzen zuten lagunek abestu egin zuten, eta hortik aurrera zerbait gehiago egitea erabaki zuten. Hasieran, gospel musika egiten zuten, baina poli- ki-poliki musika estilo gehiago jorratzen hasi ziren.

Zaletasuna serioago hartu zuten, eta 90eko hamarkadan lehenengo lana eskaini zuten: *Golden Apple Quartet... Yes*. Haren ostean, beste lan batzuk prestatu zituzten: *Cómo tan sólo los negros y nosotros sabemos hacerlo...o no?* (1993), *Sin 4 instrumentos* (1996), *Radio Golden* (1999), *La orquesta con cierto estilo Golden* (1999) Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera, *Erase una vez...17 años Golden* (2003), eta beste batzuk.

Horrekin batera, taldeak, ikuskizunetz gain, hiru disko ere kaleratu ditu: *Golden Apple Quartet* (1991), *Sin 4 instrumentos* (1995) eta *Radio Golden* (2000), hain

Donostiako laukote horrek tenore ahotsak eta esketx komikoak uztartzen ditu

Taldeak 17 urteotako ibilbidean egindakoaren begiratua egingo du Amaia antzokian

zuzen ere. Zuzeneko ikuskizunetan arrakasta handiagoa duten arren, euren diskoek ere harre- ra ona izan dute.

Taldea honako lau lagunek osatzen dute: Eduardo Dorron- soro *Edu*, Loyola Garmendia *Loyo*, Enrique Ochoa *Kike*, eta Manuel Romano *Manu*-k. Lehe- nengo hirurak donostiarrak dira eta laugarrena errioxarra da. *Manu* taldearen sortzaileetako bat da, baina denbora luzean bes- te zeregin batzuetan ibili zen, 2001ean taldera bueltatu zen arte.

TELEBISTA SAIO ASKOTAN LANEAN

Antzokietan ikuskizunak egiteaz gain, Golden Apple Quartet taldeak Espainiako Estatuko eta atzerriko hainbat telebistatan egin du lan. ETBn hasi ziren, baina Galiziako telebistan, Valen- tziakoan, TVEEn, A3n eta beste batzuetan ere hartu dute parte. Orain dela gutxi, Turkiako tele- bista baten izan ziren. Gehienu- tan, iraupen laburreko esketxak eskaini dituzte. Horien bitartez euren burua ezagutzera eman dute, baina eurek gurago dituzte antzokietako ikuskizunak.

ORDU ETA ERDIKO IKUSKIZUNA

Euren ikuskizunek, antzokietan egiten dituztenek, ordu eta erdi irauten dute. Aspaldi honetan, taldearen hamazazpigarren urteu- rrena ospatzen dabilta eta ikus- kizun baten, honetan, euren pie- za onenak batu dituzte. Domekan, Amaia Udal Antzokian ikuskizun hori egingo dute, eta 19:30ean hasiko da.

Antonio Merceroren 'Planta 4ª' film gazi-goza aste bukaeran

I.B.

Egubakoitzean, zapatuan eta astelehenean hainbat film emango dituzte Amaia Udal Antzokian. Domekan ez dute filmik emango, beste ikuskizun bat antolatu dutelako. Film eskaintzak harrera ona du.

Urtarrilean, Udaleko Kultura Sai- lak aurreratu zuen Amaia Udal Antzokiko film eskaintzarekin ekainera arte egingo zuela pro- ba. Hilabete pare bat egin dute horretan, eta badirudi eskain- tzak harrera ona izan duela. Ema- ten dituzten filmen arabera, lagun gehiago edo gutxiago joaten dira, baina herritarrek ondo erantzun dute. Are gehiago, Udalaren hel- burua da herritarrek filmak iku- si gura badituzte Gasteizera joa- tera behartuta ez egotea, eta hori, dagoeneko, lortu dute.

FINLANDIAKO FILMA

Gaur, egubakoitza, zineklubean, *Un hombre sin pasado* film fin- landiarra emango dute. Aki Kau- rismäki zuzendari ospetsuak egin du; *Leningrad cowboys go to Ame- rica*, *La chica de la fábrica de ceri- llas*, *Nubes pasajeras* eta beste film batzuen egilea ere bada. Kau- rismäki Europako zinema inde- pendentearen ikurretako bat da. *Un hombre sin pasado* filmeko pro- tagonistari, Helsinkira heltzean, jipoi galanta emango diote, eta, horren ondorioz, oroimena gal- duko du. Markku Peltola aktore- ak bizitza hutsetik hasi beharko du, eta bizi irauten ikasi ere bai du. Film horrek sari garrantzi- tsuak irabazi zituen Cannesen eta Donostian. 20:30ean emango dute, eta 97 minutu irauten du.

Bihar, zapatua, *Planta 4ª* fil- ma emango dute, 19:00etan eta 22:30ean; baita astelehenean ere, 20:30ean. Antonio Mercerok zuzendu du film hori. Mercerok lasartearra da eta oso ezaguna egin zen, *Verano azul* eta *Far- macia de guardia* telebista saio- en egilea delako. Horrez gain, besteak beste, honako film hauek zuzendu ditu: *La guerra de papá*, *Espérame en el cielo* eta *La hora de los valientes*. Drama da *Plan- ta 4ª* filma, baina umore handia dauka, eta horrek arin egiten du.

Ospitale baten egoiliar dau- den gaztetxo batzuen istorioa kon- tatzen du. Osasun arazo larriak dituzte, eta euren egoerari umo- rearekin aurre egiten diote: eri- zainei ziria sartuko diete, gaue- tan ihesaldiak egingo dituzte, sas- kibaloitxapelketan esku hartu gura dute... Juan Jose Ballesta gaztea da protagonista, eta filma *Los pelones* antzezlanean oina- rrituta dago. Soinu-banda hain- bat musikaririk egin dute, eta Esto- pa taldeak protagonismo handia du. 100 minutu irauten du.

IMMIGRANTEEN BIZIPENAK

Datorren egubakoitzean, zine- klubean, otsailaren 27an, *Las mujeres de verdad tienen curvas* filma emango dute. Patricio Car- doso kolonbiarrak zuzendu du, eta nazioartean oso harrera ona izan du.

Filma izen bereko antzezla- nean oinarrituta dago. Josefina Lopezek idatzi zuen, haren bizi- penetan oinarrituta. Lopezek Los Angelesko tailer baten lan egin zuen agiri barik, eta horixe kon- tatu dute antzezlanean eta filme- an ere bai. Immigranteen arazoa umorearekin kontaktuko dute.

XVII. Arrasate Lehiaketetan 149 lan aurkeztu dituzte

I.B.

AEDk antolatu dituen XVII. Arrasate Lehiaketetan lanak aurkezteko epea bukatu da. Guztira, 149 lan aurkeztu dituzte, eta epaia ez da jakingo apirilaren 2a arte. Sari banake- ta apirilaren 22an egingo dute.

AEDk urtero antolatzen dituen Arrasate Lehiaketek izen han- dia dute. Arrasateko eta ibarre- ko hainbat artistak euren lehe- nengo lanak lehiaketa horietan aurkeztu zituzten, eta haren bitartez euren burua ezagutzera eman zuten.

XVII. edizio honetan 149 lan aurkeztu dituzte. Horietatik, 85 ipuin, 24 poesia, 12 bertso-paper eta 28 komiki.

Adinari dagokionez, parte- hartzea horrela banatu dute: 1990ean edo geroago jaiotakoak, 58; 1988 eta 1989 urteen artean jaiotakoak, 76; eta 1987an edo aurre- tik jaiotakoak, 15.

EPAIA APIRILEAN EMANGO DUTE

Epaimahaiak jasotako lan guz- tiak aztertu beharko ditu, eta api- rilaren 2an emango du adizter- ra epaia. Sari banaketa ekitaldia apirilaren 22an egingo dute, Mon- terronen.

AEDk XVII. edizioaren balo- razio positiboa egin du. Elkarre- ko arduradunen esanetan, azken- urteotako beheranzko joera gela- ditu egin da, eta aurtien parte- har- tzeak gora egin du.

AEDko kideek nabarmendu dute parte-hartzaile gehienak 1988an edo geroago jaiotakoak direla. AEDren ustetan, horren- arrazoa da eskoletan ipuina lan- tzen dutela, eta irakasleek ikas- leak animatzen dituztela sariki- tetan esku hartzera. Horregatik, AEDk eskerrak eman gura dize- la irakasle horiei.

E, TXO!

GUREGAIK/ IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERA

Txatxilipurdi, Udala eta hainbat ikastetxe 'Eskola eta aisialdia' proiektua bultzatzen dabilta

IKER BARANDIARAN

GAUR, SOZIEDAD ALKOHOLIKA GAZTETXEAN

Gaur, egubakoitza, Gasteizko Soziedad Alkoholika taldeak kontzertua egingo du gaztetxean, 22:30ean. Sarrera 4 euro da.

BIHAR, PERKUSIO AFRIKARRA

Bihar, zapatua, Gasteizko Djamboree taldeak perkusio afrikarreko doinuak eskainiko ditu gaztetxean, 22:30ean. Emanaldia doan izango da, eta suarekin ikuskizuna egingo dute.

ARATUSTEETAKO TABERNA TXANDAK GAZTETXEAN

Domekan, batzarra egingo dute gaztetxean, Aratusteetako taberna txandak banatzeko. 18:30ean izango da.

LUDETEKA IBILTARIA

Otsaileko zapatuetan (bihar eta 28an), Txatxilipurdik ludoteka ibiltaria egingo du Musakolako eraikinean, San Antolinen. 11:00etatik 13:30era izango da, eta gura duten 3 urtetik 12 urte bitarteko guztiak esku hartu ahal izango dute.

BIHAR, 'LARUNBLAI' EGINGO DUTE HERRIKO PLAZAN

Bihar, zapatua, Txatxilipurdik *Larunblai* tailerra egingo du Herriko Plazan. 11:00etatik 13:30era, gura duten gaztetxo guztiek Aratusteetako mozorroak egingo dituzte.

EUSKAL DANTZEN IKASTAROAK

Lore Gazteak taldeak euskal dantzen ikastaroak antolatu ditu: batetik, *muxikoak* edo erromerietako dantza herrikoiak; eta bestetik, Larrain dantza. Ikastaroak martxoaren 5ean hasi eta San Juanetan bukatuko dira, eta egubakoitz arratsaldeetan batuko dira, 19:00etatik 20:30era. Matrikula 9 euro da.

Orain dela zazpi urte, Udalak, Txatxilipurdik eta hainbat ikastetxek *Eskola eta aisialdia* izeneko proiektua jarri zuten abian. Proiektuaren helburua da ikasleak kontzientziatzea euskaraz gehiago egin dezaten.

1997an, institutuko irakasle batek Txatxilipurdira jo zuen, ikasleen euskararen erabilera urriarekin arduratuta. Ikastetxeen ingurunean euskararen erabilera indartzeko ekimen baten premia ikusi zuen, eta, hain zuzen ere, laguntza eskatu zion Txatxilipurdiri.

Txatxilipurdiko Errukane Aperribaik, Amaia Gabilondoren laguntzarekin, horren gaineko ikerketa egin zuen. Besteak beste, ikasleek zein nahi eta interes dituzten eta euskararekiko zein jarrera dituzten aztertu zuten. Horren arabera, *Eskola eta aisialdia* izeneko proiektua definitu zuten. Txatxilipurdik hitzarmena sinatu zuen Arrasateko Udalarekin, eta urtez urte ekimenak eskola gehiagotan egitea adostu zuten.

IAZ, 597 IKASLEREKIN LANEAN

Proiektu hori Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasten dabilta hain-



Mesedeetako Amaren ikastetxean, besteak beste, buztin tailerra egin dute.

bat talderekin eraman dute aurrera. Esaterako, 2003an, 597 ikasle esku hartu zuten ekimen horretan. Dagoeneko institutuan, Mesedeetako Ama ikastetxean eta Herri Eskolan egin dute lan. 2004-05 ikasturtean proiektu hori Arizmendi ikastolan egin gura dute. Urtean talde bakoitzarekin bederatzi ekin-

tza egiten dituzte. Hilean behin egiten dute, baina opor sasoiaren atseden hartzen dute.

Txatxilipurdiko kide batek talde bakoitzarekin bost urtean egingo du lan, eta hainbat ekimen antolatuko ditu. Egiten dituzten ekintzak bi alorretan bana daitezke: batetik, aisialdikoak; eta


bestetik, eragingarriagoak. Lehenengo taldean, jolasak eta eskulanak daude eta bigarren taldean, berriz, hizkuntzarekin lotura zuzena dutenak. Besteak beste, bertso lehiaketak, euskal kantuak, bertso erotikoak, eta abar.

Ekintza guztietan irakasleek ere esku hartzen dute, eta asmoa da proiektuko bost urteak igaro ondoren, irakasleek ekimenari jarraipena ematea. Are gehiago, askotan irakasleek eurek proposatzen dizkiete ekintzak Txatxilipurdiko kideei.

EUSKARAZ, GUSTURA ETA LASAI

Ekimen horren koordinatzaile Idoia Otaegiren esanetan, *Eskola eta aisialdia* proiektuaren helburu nagusia da ikasleak euskarazko testuinguruan gustura eta lasai egotea. Eta, bide batez, euskaraz egiteko ohitura hori indartzea. Horrez gainera, euskal kulturaren berri ematen diete, eta euskararekiko sentsibilizazioa indartzea gura dute.

Hori lortzeko, ezinbestekoa da gazteak motibatzea. Horregatik, hainbat eta hainbat ekintza antolatzen dituzte. Otsailean, esaterako, euskal pertsonaia famatuak ekarriko dituzte.




Irudian, Arrasateko Institutuko ikasle batzuk euskal kantuak abesten.

Txatxilipurdiko begiraleek ikasleekin hainbat ekimen egiten dituzte

Ikastetxeen ingurunean euskara indartzeko proiektua da, hain zuzen ere

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



Bonaventure
Diesel
Pepe
Levis

Otalora z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72



Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

Garbiketetan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

BEHEKODENDATIK

Abelino Fernandez

HYUNDAI AUTO KONTZESIONARIXUE

XABIER URZELAI

Mekanika industrialia ikesi euen Abelinok, Eskola Profesionalien. 18 urtekin hasi zan automobilekin lanien, eta bi urte eta erdi egin dittu Hyundaien. Gustora dabil, bai lan egiten dauen automobil markiekin eta baitte enpresako jabiekin be. Aretxabaletara bidien topauko dozue Hyundai kontzesionarixue.

Ze falta jako Mondragueri?

Gauza asko falta jakola esango neuke. Zerbitzu gehixau euki biherko leuke, eta baitte aparkamentu gehixau be.

Eta, ze dauko ona?

Jentie konturaketan dabilela Mondraguek horreik karentziok daukola, eta agintarixek neurrixek hartzen hasi diela: adibidez, aparkamentu gehixau egiten hasi die, eta Amaia antzokixen zinie jarri daue.

Ze falta jatzu zeuri?

Denpora librie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Umore ona.

Pelikula bat. Liburu bat. Musika talde bat.

Ez naz zinezalae / Leidu be ez dot larregi egitten / King Crimson, adibidez.

Momentu honetan nora juengo zitzake gustora?

Leku asko dauz. Laister Egiptora jueteko asmue dauket.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Plantxie.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Inokin be ez.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Lantalde ona eukittie.

Denpora librien ze egitten dozu?

Motorrien ibilli.


Kapritxo bat.

Moto barrixe erostie.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Paris.

Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?



X.U.

"Neuri Hyundai Matrix modelue gustetan jat, eta hori da gehixen saltzen dogun automobile"

Gerrak bukatu egin diela. Seguru bat baiño gehixau harrittu egingo litzakela Hyundai markiekin ofreziduten daue-nakin.

Seguru baietz. Jentiek gutxi ezaguketan dauen marka bat da, baiñe markie ezaguketako, Hyundai bat erosi besterik ez dauketzu.

Hyundaik ze dauko ona?

Duda barik, daukon preziorako ofreziduten dauen kalidadie. Horrez gain, inportantie da esatie Hyundaik merkauen hamalau modelo ezberdin dittuela.

Merkauen sartzie gatxa izen-go da ba.

Jentiek markie ezauketan ez dauenien kostau egitten da mer-

"Inportantie da esatie Hyundai markiekin hamalau modelo daukola merkauen, danon gustorako"

kauen sartzie, eta gogor egin biher da lan. Kontuen euki biher da, baiñe, Hyundai 1940xen hasi zala automobilekin egitten, eta horreik urte asko die.

Ze modelo gustetan jatzu gehixen?

Neuri Hyundai Matrix modelue gustetan jat. Leku haundixe dauko, baiñe neurri berien hiri eta herrixetan ibiltteko aproposa da; aparketako eta manejetako errexa da, eta baitte komodu be.

Asiatikuek exigentiek izen-go die ba...

Oso exigentiek. Hamengo langillioek preparaute egon biher dogu; neure mekanikue Madrillen egon berri da, ikastaro baten.

NIREBIDAIAHURA/ Julen Mendizabal

Ipar Irlandara / 2003ko otsailetik abendura arte

Gauza batek baino gehiagok bultzatu zuten Julen Irlandara joatera: "Lehenago ere egonda nengo, eta argi neukan kanpora berriro joatekotan Irlanda aukeratuko nuela. 2002ko uda hantxe igaro nuen, eta lagun mordoa egin nituen". Julenek ia urtebete egin zuen Ipar Irlandan, baina sarri etorri zen Arrasatera: "Lan egin eta ingelesa ikasteko asmoarekin joan nintzen Irlandara. Hara iritsi eta lehenengo egunean aurkitu nuen lana, hortaz, zorte handia izan nuen". Julen lantegi batean hasi zen lanean: "Astean zehar lan egin eta lagunekin egoten nintzen. Ahal nuen bakoitzean liburutegira joaten nintzen, Irlandaren gaineko liburuak irakurri eta hango arazo politikoaren berri izateko. Gai hori asko interesatzen zitzaidan, eta arreta berezia eskaini nion".

Gainera, Julenen esanetan, Ipar Irlandan arazo politikoa begi bistan dago: "Kaleko partak erabat margotuta daude, aldarrikapenekin beteta; eta, edozein auzotara ezin zaitezke sartu. Gainera, noizean behin pasatzen diren helikopteroek argi uzten dute ezohiko egoera dela".

Astean zehar lan egin eta asteburuetan lekuak bisitatu: "Autoak alokatu eta bidaiak egiten genituen. Besteak beste, Irlandako mendebalera joan ginen, Galway ingurura, eta Moher-eko amildegiak asko gustatu zitzaizkidan. Irlandako parajeak azpimarratuko nituzke, baina zuhaitz gutxi daude. Badirudi ingelesen zuhaitza mordoa moztu zituztela; gero, lur zoruak egiteko.

Datorren astean ere Irlandan izango gara; Julenek nondik nora ibili zen kontatzeaz gain, politika kontuak ere izango ditu berbagai.

XABIER URZELAI



Aldarrikapenez beteta daude ipar Irlandako etxeetako hormak.


Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiak kontatzeko prest zaude? Anima zaitez, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



PUB HAIZEA



arrasate

ZAHARREN ETXETIK



Iturbideko hainbat egoiliar argazkirako bereziki jarri ziren, Aratuste-martitzenean erabiliko dituzten mozorrotako batzuekin.

Aratuste-martitzenerako dena prest dute herriko erretiratuek

IKER BARANDIARAN

Arrasaten Aratusteetan Aratuste-martitzena besterik ez da ospatzen, baina, batez ere, umeez eta erretiratuek ospatzen dute.

Herriko erretiratuen elkarte gehienek ekitaldiak antolatuta dituzte egun horretarako. Abaroan askaria eta dantzaldia egingo dituzte, 18:30ean. 430 lagunek hartu dituzte gonbidapenak. Uribarri elkarteak, berriz, dantzaldia eta txokolate-jana izango dituzte, 18:00etan.

MOZORROAK EGIN DITUZTE

Iturbide egoitzan ere badute Aratuste-martitzena ospatzeko asmoa. Urtarril hasieran, Gabonak bukatu bezain laster, horretan hasi ziren. Egunero egiten dituzte eskulanak, eta aspaldi honetan, Aratusteetarako mozorroak prestatzen hasi dira.

Iturbide egoitzako begiraleen esanetan, egoiliarrek mozorrotzeko alferkeria handia izaten dute, baina behin mozorrotuta oso ondo pasatzen dute: elkarri barre

egiten diote, eta umore oso onez pasatzen dute eguna. Are gehiago, egoiliarrek begiraleei gazte mozorrotu gura zutela esan zieten, egun batez gazte izan gura zutela, hain zuzen ere. Hortaz, begiraleek aurten egoiliarrak hippy mozorrotzea erabaki zuten. Horretarako, eskulanetan, mas-

Egoiliar guztiak eskulanetan

Iturbide egoitzan uste baino jarduera gehiago egiten dituzte. Goizean goiz egoiliarrak gimnasia egiten hasten dira, eta horren ostean hainbat ariketa egiten dituzte. Horien artean, eskulanak nabarmen ditzakegu. Alzheimerra edo buruko beste gaixotasunen bat duten egoiliarrek ere esku hartzen dute, mozorroak edo dena delakoak egiten.

karak, izarrak, loreak eta beste-lakoak egin dituzte. Eta aste honetan, oihal gorriarekin hippy jantziak egin dituzte.

Egoitzako begiraleen esanetan, honako mozorro hau oso erraza da egiteko, eta egoiliarrak oso gustura ibili dira horiek egiten. Hain zuzen ere, eskulanetan moztzen, margotzen eta itsasten ibili dira, eta hori egiten ohituta daude.

TXOKOLATE-JANA ETA DANTZALDIA

Aratuste-martitzenean, txokolatea eta txurroak jango dituzte, 17:00etan. Egoiliarrez gain, euren senideak ere gonbidatuta daude askarira. Horren ostean, Quintanilla musikariak esku hartuko du eta dantzaldia egingo dute. Zer esanik ez, egoiliar gehienak eta senideetako asko mozorrotu egingo direla.

Iturbide egoitzan Aratuste-martitzenerako duten hasierako plana iragarri duguna bada ere, badirudi ezuste atseginak ere egongo direla. Egoiliar batek esan zigun ipuinak eta txistek kontaktatu, eta abestu egingo dutela.

LABUR

1951ko eta 1958ko kintoak, hurrenez hurren, urteko batzarrak antolatzen dabilta

1958ko kintoek (1937an jaiotakoek) urteko batzarra egingo dute martxoaren 28an. 12:30ean meza egingo dute. Horren ostean, txikiteoa eta bazkaria Musakola Hostalean. Interesatuak eman izena lehenbailehen, eta 20 euro ordaindu. Riviere (943 79 02 48).

Bestalde, 1951ko kintoak (1930ean jaiotakoek) martxoaren 6an egingo dute urteko batzarra. Juan Jose Uribarren (943 79 80 08).

Uribarri elkarteak mus, tute eta briska txapelketak jokatu dituzte

Otsailaren 25an, 26an eta 27an, Uribarri elkarteak mus, tute eta briska txapelketak jokatu dituzte. 17:00etan hasiko dira. Interesatuak elkarteak bulegoan eman beharko dute izena. Txapelketako irabazleek ibarreko txapelketan esku hartuko dute. Bestalde, martxoaren 13an batzar orokorra egingo dute, eta elkarte presidentea aukeratu dute. Hautagaiek eman dezatela izena.



Beste dantza talde bat eratu gura dute

Abaroa elkarteak hainbat bazkidek dantza ikastaroa jasotzeko beste talde bat eratu gura dute. Abaroan aspalditik dabilta dantzako eskolak jasotzen eta, dirudienez, taldean ez dago beste inorendako lekurik.

Arrazoi horregatik, Abaroako eta herriko gainontzeko erretiratuen elkarteetako kideei gonbidapena egin diete izena eman dezaten, beste dantza talde bat eratzeko. Interesatuak jo dezatela Abaroako bulegora astelehenetik eguenera, 18:00etatik 19:30era. /A.B.

Miren Arrieta perfumerian

Otsailaren 23tik 27ra, La Prairie etxeko edertasun aholkulari bat zure zerbitzura izango duzu.

Ezinbestekoa da txanda hartzea
943 79 00 35 telefono zenbakian.

Opari berezi bat jasoko duzu
La Prairie produktuak erosteagatik.

Miren Arrieta
Zerkaosteta kalea 12
Tel.: 943 79 00 35

la prairie
SWITZERLAND



GAINDEGI

- Kafetegia
- Eguneko menua
- Entsaladak
- Ogitartekoak
- Hamburgesak
- Plater konbinatuak

Laster zabalik Zigarrolan

LANGILEAK BEHAR DITU:

Sukaldariak:

Esperientzia 50 menu baino gehiago gertatzeko orduan. Sukaldearen antolakuntza eta baita lehengaiarena ere. Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 16:00etara.

Zerbitzariak eta sukalde laguntzaileak:

Esperientzia Astelehenetik ostiralera edo asteburuetan bakarrik. Interesatuok deitu: 610 733 503



Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32



ARRASATE
Iker Letona
Otsailaren 5ean,
urtebetetzea. Zorionak!
Amama Milaren partetik.



ARRASATE
Unai Ugalde
Otsailaren 19an, 17 urte.
Zorionak! Etxekoan
partetik.



ARRASATE
Maialen Gallardo
Otsailaren 22an, 6 urte.
Zorionak! Familiakoan
partetik.



ARRASATE
Ander Aranzabal
Otsailaren 18an,
urtebetetzea. Zorionak!
Etxekoak eta anaia.



ARRASATE
Maialen Ortiz
Otsailaren 27an, 5 urte.
Zorionak! Familiakoan
partetik.



ARRASATE
Aitor Saenz-Azkunaga
Otsailaren 16an,
urtebetetzea. Zorionak!
Lagunen partetik.



ARRASATE
Julen Bilbao
Otsailaren 25ean, 16
urte. Zorionak! Haritz,
Amets, Uxue eta Ibai.



ARRASATE
Danel Uribesalgo
Otsailaren 20an, 7 urte.
Zorionak! Familiakoan
partetik.



ARRASATE
Julen Nafarrate
Otsailaren 17an, 6 urte.
Zorionak! Aita, ama eta
Gorka.



ARRASATE
Pepa Cabrera
Otsailaren 19an,
urtebetetzea. Zorionak!
Gaizka eta Garazi.



ARRASATE
Laura Balanzategi
Otsailaren 23an, 6 urte.
Zorionak! Familiakoan
partetik.



ARRASATE
Jennifer Cucional
Otsailaren 18an, 13 urte.
Zorionak! Gelakidean
partetik.



ARRASATE
Aintzane Eguskiza
Otsailaren 20an, 42 urte.
Zorionak! Mikel, Ane eta
Jose Mari.



ARRASATE
Ikerne Garcia
Otsailaren 16an, 8 urte.
Zorionak! Etxekoan
partetik.



ARRASATE
Aitor Marco
Otsailaren 22an, 3 urte.
Zorionak! Etxekoan
partetik.



ARRASATE
Ander Moreno
Otsailaren 24an, 12 urte.
Zorionak! Mertxe, Anton
eta familiakoan partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko otsailaren 20a / 97. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02


Hauteskunde-mahaietan jardun behar duten herritarrak izendatu dituzte

UBANE MADERA

Zozketatu zituzten martxoko hauteskundeetan mahaietan jardun behar duten 18 herritarren izenak. Pertsona horiek oraingo astean jaso dute jakinarazpena. Orain, zazpi eguneko epea dute erreklamazioak egiteko, Gasteizko hauteskunde-batzordean.

Txanponak eta zenbakidun bolatxoak erabili zituzten asteleheneko batzarrean hauteskunde-mahaietan jardun behar duten herritarren izenak aukeratzeko. Betiko moduan, herrian bi mahai izango dira, eta mahai bakoitzarako bederatzi lagun behar dira: presidentea eta haren bi ordezkari eta bi kide eta bakoitzaren beste bi ordezkari. Beraz, guztira, 18 lagun. Pertsona horiei oraingo astean bertan bidali diete jakinarazpena. Eta orain, zazpi eguneko epea dute erreklamazioak egiteko, Gasteizko hauteskunde-batzordean.

Gero, hauteskunde egunean bertan, martxoaren 14an, aukeratuak 18 herritarrek 08:00etan hauteskunde-mahaietan aurkeztu beharko dute. Eta behin mahaiak eratzen dituztenean,



Txanponen eta bolatxoaren sistema bitartez egin zuten zozketa.

bestelako eragozpenik ez, ordezkariak joan ahal izango dira.

UDALETXEKO LANAK ETA DIRULAGUNTZAK
Horrez gainera, bestelako gaiak ere izan zituzten berba-gintzen zinegotziak asteleheneko batzarrean. Adibidez, udaletxe lanekin

lotutako tramitazio kontuak landu zituzten. Baita Udala Haurreskolak partzuergoan sartzea ere. Hain zuzen ere, San Martin Eskolan 0-2 urteko haurrentako zerbitzua ezartzea da Haurreskolak partzuergoaren helburua. Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi zuenez, dagoeneko egin dute zerbitzu berria eskaini ahal izateko lanen proiektua. Horren arabera, eskolako sotoa erabiliko dute 0-2 urteko umeendako. Jakina, behar bezala egokituta. Hala, proiektua Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari erakutsi behar zaio, hark onespena emateko. Eta behin onespena emanda, alkateak esan zuen datorren urtean hasiko dituztela lanak, aurtengo Udalak ez du-eta dirurik.

Udalbatzarrak aho batez onartu zuen proposamena.

Bestalde, eztabaida luzea izan zuten zinegotziak obrekiko lotutako gai batengatik. Hain zuzen ere, obrak-eta egiten direnean enpresek okupatzen duten lur publikoengatik ordaindu beharreko tasengatik. Tasa horien zenbatekoa aldatzeko aukera proposatu zuen zinegotzi batek baino gehiagok, baina ez zuten gai sakonago landu.

Eta bukatzeko, bestelako gaien artean zenbait dirulaguntza eskaera aztertu zituzten: Erretiratuen Egunerako eta Emakumeen Asterako Diputazioari eskatzea laguntza, Maider Undari 490 euro ematea eta Jon Agirreren senitartekoei 1.000 euro, preso aramaioarra bisita dezaten.

LABUR

Odola ateratzera etorriko dira datorren astean

Arabako Odol Bankukoek deitu egin dute datorren eguaztentean, hilak 25, odola ematera joateko. Betiko moduan, osasun etxean egingo dituzte odol-ateratzeak, arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara.

Jakinarazi digutenez, azkenaldian jaitsi egin da odol ematen duten aramaioarren kopurua. Eta odol beharra berriz, ugartu egin da. Horrenbestez, odola ematera joateko dei berezia egin dute aramaioarrei.

Ibili dira kultura etxeako itoginak konpontzen

Bukatu dituzte kultura etxean zeuden itoginak konpontzeko aurreikusita zituzten lanak. Hain zuzen ere, terrazan eta teilatuan egin dituzten konponketak horiek.

Orain, lehenengo euri-zaparradaren zain daude, ea arazo benetan konpondu duten edo ez ikusteko. Hala, bada, herri-tasunarengatik kaltetuta dauden paretak-eta margotu egingo dituzte laster.

Adinaren muga ezabatuz gero, gazteak lokaletan sartzeko gertu

U.M.

Udalak gazte lokalak erabiltzeko zabaldu berri duen zerrenda dela-eta, gazteekin berbetan izan gara oraingo astean. Kontatu digute gertu egongo liratekeela lokaletan izena emateko, baldin eta Udalak ez balu ezarriko adinarekin lotutako mugarik. Gazte guztiak ados daude horrekin.

Edozein adinetako gazteak sartu ahal izatea lokaletara. Horixe bera eskatzen dute herriko gazteek kultura etxeako gazte-lokaletan sartzeko. Ikusten denez,


murriztu egin dituzte orain arteko eskaerak edo baldintzak. Eta, kontatu digutenez, Udalak ezarritako 20 urteko adin-muga ezabatuz gero, gertu egongo lirateke lokaletan sartzeko.

GUZTIENAKO EDO INORENDAKO

Gauzak horrela, hori lortu arte gazteek ez dutela lokaletan sartzeko izenik emango jakinarazi digute haien ordezkariak: "Guztiz sartzen bagara, 20 urtetik gorakoak ere gurekin batera sartuko dira. Eta hori gertatzen bada, Udalekoek berritako erabakia gaituzte lokaletatik. Hortaz, zertarako sartu behar dugu?"

Gaineratu digute gazte guztiak ados daudela erabaki horrekin, nagusiak zein gaztetxoak. Eta oso pozik daudela orain arte jasotako erantzunarekin; izan ere, inork ez du izenik eman Udalaren zerrendan.

Guztira, 70 bat gazte dabilta gazte lokalekin bueltara, 14 urtetik hasi eta 22 urtera artekoak, hain zuzen ere. Eta gauzak konpontzen ez diren artean, ez dute egoteko leku larregirik aukeran. Izan ere, azken hilabeteotan euren elkartokia izan dena, Santa Ana ermita, hankaz gora dago orain, han egiten dabilta lanen ondorioz.



Denbora luzea daramate gazte lokalen arazoari konponbidea aurkitu ezinda.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kirolegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	19:30
19:00	19:15	
21:00	21:25	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:20	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

OHARRA: izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BAÑERAREN EMAITZAK

Badirudi Bañerako neskek burua altxatzen dabiltzala poliki-poliki. Azkeneko partiduan, behintzat, seina berdindu zuten Francisco de Vitoria taldearen kontra, eta entrenatzailea oso pozik geratu zen neskek egindako lanarekin. Mutilen aldetik ere berri pozgarriak ditugu. Izan ere, joan zen zapatuan 9-5 irabazi zioten sailkapenean lehenengo zegoen taldeari, La Milagrosari. Horrela, eta gol aldeari esker, orain aramaioarrak dira lehenengoak. Oraingo asteburuan, bi taldeek atseden izango dute. Aratusteak direlako.

BARIKUKO ZINEMA

Oso film klasikoa emango dute gaur, barikua, 22:00etan: Victor Fleming-en *Lo que el viento se llevó*. 1939an estreinatutako film horrek bederatu Oscar sari irabazi zituen.

DOMEKAKO ZINEMA

Abenturazko film bat aukeratu dute oraingo domekarako: *Piratas del Caribe*. Aurtengo udan zinema gehienetan ematen ibili diren filmetako bat da.

Gaur eta bihar egingo dituzte Aratusteekin lotutako ospakizunak

U.M.

Gaur ospatu dituzte San Martin Eskolako umeek Aratusteekin; izan ere, datorren martitzenean jai izango dute. Edozelan ere, bihar berriro izango dute aukera, arratsaldean hasi eta iluntzera arte. Tartean urteroko mozorro lehiaketa egongo da.

Euskal Herriko Inauterietan oinarritutako mozorroekin atera dira gaur, barikua, San Martin Eskolako umeak. Euren egin dituzte mozorroak, eskolan. Hala, arratsaldean, jantzi bereziak erakusteko kalejira egin dute, eskolatik plazara. Han, dantza saioa izan dute eta ostean, berriro eskolara bueltatu dira, txokolatea jatera. Gero, martitzenean jai izango dute.

BIHAR, LEHIAKETA ETA PARRANDA

Eta bihar, zapatua, nahi duten herritar guztiek izango dute Aratusteetan ibiltzeko aukera. Arratsaldean hasiko da jai. 17:30ean, kirolegitik atera eta kalejira izango da plazaraino. Han, mozo-



ARTXIBOA

Aurreko urteetan egon izan den egitarauaren antzerkoa antolatu dute aurtengo Aratusteetarako.

ro lehiaketako sariak banatuko dituzte, 18:00etan.

Sei sari izango dira guztira; taldeen kasuan lau: umeendako bi (90 euro lehenengoari eta 36

euro bigarrenari) eta 14 urtetik gorakoendako beste bi (kopuru berak). Eta, orijinaltasuna ere sarituko dute, taldeka edo bana-ka: 48 euro lehenengoendako eta

30 euro bigarrenarendako.

Horren ostean txokolatea banatuko dute, eta gero, dantzaldia izango da Poco Pico taldearen eskutik.

BOTEPRONTOAN/ Izaskun Ormaetxea · Ormaetxea dendakoa

“Bizimoduak denoi mozten dizkigu hankak; orduan garrantzitsuak dira gurea moduko dendak”

Aramaion badira leku batzuk, urteen poderioz, herrian oso abarneratuta daudenak. Horietako bat da Ormaetxea dendakoa. Hantxe, Bizente Goikoetxea jaio zen etxearen behealdean dago, Morrongo etxean, hain zuzen ere. Izaskun Ormaetxea Etxebarria da dendakoa ugazaba. Mostradore atzean aurkitu dugu, eta makina bat kontu esan dizkigu:

Zela hasi zinen dendarekin?
Aitak zuen dendakoa. Beste batek izan zuen lehenago eta gero aitak hartu zuen. Aita-amak ibili ziren; gero Miren; eta gero neu. Gerra ostean hartu zuen aitak dendakoa, 1944an-edo. Izan ere, gerrarengatik kartzelan egon zen eta handik etorri zenean, Arrasaten zuen lanpostua galdu zuela ikusi zuen. Hala hasi zen.

Gauza asko aldatu dira?
Jendearen eskaerarekin batera egiten dira aldaerak. Adibidez, lehen, telak egoten ziren asko, baina orain, josten ez denez, telarik ez da saltzen... Behararren arabera. Beste gauza batzuk ere aldatu dira: pisua, frigorifikoa, kalkulagailua... Lehen, halakorik ez zegoen. Eta jeneroekin lotutakoak ere bai. Adibidez, lehen, azukrea solte saltzen zen. Erosleak nahi zuen kantitatea poltsa edo paper



“Lehen, eguerdietan, zapatu arratsaldeetan eta domeketan ere zabaltzen zen dendakoa”

batera bota, pisatu, batu eta hala saltzen zen. Olioarendako, berriz, tabernetan zerbeza ateratzeko erabiltzen den aparailuaren antzerako bat erabiltzen zuen aitak. Oraindik ere mostradorean zuloa dago. Gailetak paketeetan sartzen ziren saltzeko. Guk latorrizko (hojalatza) kaxa batean hartzen genituen eta jendeak pisuaren arabera erosten zituen. Domeketan txikitoak saltzen genituen...
Hemen denetik daukazue, ezta?
Den-denetik ez, baina bueno...
Badago ezer hemen ezin dudarik erosi?
Izoztutako produktuak, adibidez ez. Okela eta halakoak ere ez.
Halako dendetan lehen beste erosten da?
Ez, ez. Galtzen doa. Normala da. Gu ezin gara lehiakorrak izan dendakoa handiekin, eta ez dugu laguntzarik. Baina bueno,

“Uholdeak izan ziren 53an; ura sartu zen dendakoa. 1,25 metro hartu zuen urak. Askok galdu zuen”

mantentzen gara. Hori bai, igarri dugu. Jendeak erosketa handiak Arrasaten egiten ditu, eta egunerokoa, fruta-eta, hemen. Baina nik gauza bat esan behar dut: pentsatzen dut gu zerbitzu bat ematen gabiltzala. Batzuek pentsatzen dute hori beharrezkoa dela, eta kontuan daukate. Beste batzuek ez. Eta jendea gaztea denean, hartzen du autoa eta ibiltzen da harantz eta honantz, baina bizimoduak denoi hankak mozten dizkigu poliki-poliki. Eta, halako batean, beste pertsona baten laguntza barik ezin duzu autoa hartu eta kanpora joan. Orduan, ondo etortzen da halako dendak txikiak hur izatea. Horregatik uste dut ona dela halako dendak edukitzea. Gainera, tratua ere bestelakoa da. Bezeroak ezagunak dira, eta batzuetan, konfiantza handia dagoenean, konfesatoki bihurtzen da dendakoa. Problema-eta kontatzen dizkigute.
Horrenbeste urtean gertatu zaiuzen gauzarik pozgarriena?
Jendeak ematen dizun poza, esker ona. Behin, batek esan zigun gogorra zela gure lana, ordu mordera sartzen ditugulako. Katean lan egitea hobea zela zioen, baina, era berean, asko eskertzen duela gurea moduko dendakoa bat gertuan izatea.

ERRETRATUZAHARRA

Aratusteetako kartel lehiaketan

Aratuste sasoia izanda, ezin bestela izan, eta Aratusteekin lotutako argazkia ekarri dugu oraingo honetan. Ez da horren zaharra, orain dela 11 urtekoa da; 1993koa, beraz. Baina harrezkero izan dira zenbait aldaketa.

Argazkian agertzen diren gure lagunak Udalak antolatutako kartel lehiaketan parte hartu zutelako elkartu ziren. Hain zuzen ere, egindako lana udaletxera eraman zuteneko unean harrapatu zituen argazkilariak. Honako hauek dira, ezkerretik eskumara: Ihintz Bengoa, Uzuri Larrañaga, Josune Elkoro, Jaione Elkoro Nerea Alberdi, ezezaguna eta Saloa Etxeberria.

Gure berriemaileek kontatu digutenez, argazkian agertzen diren tango batzuk Monterronen antolatzen zituzten margo-eskoletan zebiltzan. Hantxe animatu zituzten Udalaren kartel lehiaketan parte hartzea, eta gure lagunak halaxe egin zuten. Kontatu digute, gainera, oso ondo ibili zirela kartelak egiten. Batez ere,



zapatuetan joaten zirela Monterongo azkeneko solairura, lanera. Eta, kasu batzuetan, binaka egin zutela lan. Hala egin zuten argazkiko aurreneko laurek. Argazkian ikusten da bikote bakoitza kartel bat oratzen dabilela.

Kartelez gain, Aratusteen gainean berba egin ziguten. Adibidez, kontatu

ziguten lehen, orain dela urte asko, eskola guztietako ikasleek batera kalejira egiten zutela herrian. Baita eskolara mozorrotuta joaten zirela, ere eta han jokoak-eta egiten zituztela. Gainera, esan ziguten, lehen, orain baino gehiago, jantziak-eta etxean egindakoak izaten zirela askotan. Hori

bai, gaur egun bezala, orduan ere ohitura zen nor bere koadrilarekin mozorrotzea.

Argazkia: ARRASATE PRESS.
Informazioa: Josune Elkoro eta Ihintz Bengoa.
Urtea: 1993.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Udalako elizaurrea eta auzoa

Udala auzoa da Arrasateko inguruetan ihesalditoxa egiteko leku aproposetako bat. Herriko zaratak atzean utzi, eta Erguinetik gora Udalatxen magalean dagoen auzoko lasaitasunaz gozatzea izaten da mondragoetar askoren helburua; udan, batez ere. Udalako eliza San Estebani eskainitakoa da; 36ko gerran erabat hondatuta geratu zen.



≈ 1988 Goiko argazki biak ikusita argi dago auzoak ez direla herriak beste aldatzen; horren azkar ez, behintzat.



2004 Ingurugiro Eskola 1990ean jarri zuten abian, eta hori da auzoak azken urteotan izan duen aldaketa nabarmenena.

OSORIK PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Gorka

ileapaindegia
peluqueria

Orduetgia:
Asteleheneretik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrerias 35 - 943 77 13 78


UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
• Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com



Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

943 79 27 73

ARRASATE

Jose Luis Iñarra pasealekua
posta-e: mercedikas@terra.es

Haur Hezkuntza
0-2 urte

67€ hilean



Lehen Hezkuntza



DBH


2004-2005

Matrikulazio epea:
otsailaren 16tik 27ra.

Haur Hezkuntza
2-6 urte



eredua **D**



gelatzo s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 Faxa: 943 78 15.51



ALDEDI

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84



San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxe:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Zoruak • Leihoak • Ateak • Horma-armairuak

